



Unai Fernandez de Betoño \*



Iñaki Galarragarekin solasean

## “ Arkitekturaren aldeko aldartea sortu nahi izan genuen ”

### Arkitektura postmodernoa entzun, eta zer datorkizu burura?

Lehenik eta behin, esango nuke *postmoderno* kalifikatzailea ez dudala egoki ikusten. Ukatu egiten dut. Sternekin asmatutako zerbaite da, eta adjektibo hori erabiltzen hasi zenetik, edukiz erabat hustutako estilo bilakatu zen. Hasieran ez zen estilo bat, baizik eta hiri ulertzeko modu bat, Aldo Rossik *L'Architettura della città* liburuan azaldu zuen bezala. Hirien balio historikoa aztertzeko metodo bat zen, hortaz. Sternekin arinki hartu zuen, estilo bihurtuz. **Arkitektura postmodernoa baino, nik nahiago dut arkitektura arrazionala edo hiriaren arkitektura esatea.**



Bestetik, ziurtatuko nuke hiri-balioa arkitekturaren oinarritzko osagai gisa oraindik ere indarrean dagoela. Rossiren 1966ko liburuan, zein ondoren antolatu zuen Milango Hirurtekoan, morfologia eta tipologia kontzeptuen oinarriak berreskuratu ziren. Hiriaren forma eta eraikinen tipoa birdefinitu ziren, Quatremere de Quincy abiapuntu, ia-ia modu filosofiko batean. Hala ere, Rossiren ideia horiek ulertzen oso zailak zirenez, *L'Architettura della città* ez baita erraz irakurtzen den liburu horietako bat, katalogo moduko bat bihurtu zen garai hartako arkitektura, azaleko estilo bilakatu arte.

### Garai horretan Donostian antolatu ziren “Semanas de Arquitectura” jardunaldietan izan zinen? Nola bizi zenuen? Zer dela-eta arkitektura postmodernoa eragin berezia izan zuen Euskal Herrian?

Batez ere Donostian eragin zuen. Arkitektoen belaunaldi gazte batek ikasketak bukatu genituen 1968-1971 urteen bitartean. Besteak beste, Migel Garai, José Ignacio Linazasoro, Alberto

Ustarroz, Manuel Íñiguez, Javier Cenicacelaya eta ni neu. Xabier Unzurrunzaga ere bazegoen, ikasketak lehenago bukatu bazituen ere. Giltzarria Aldo Rossik Donostiako Arkitektoen Elkargoan emandako hitzaldia izan zen, Rafael Moneok aurkeztuta, 1974an oker ez banaiz. Hitzaldi hura *Semanas Críticas de Arquitectura* delako bi jardunaldiren artean izan zen. Hitzaldiaren kariatara, **Rossik lauzpabost egun iragan zituen Euskal Herrian, eta harekiko laguntasuna sortu zen.** Gogoratzen dut Getaria, Eunate eta Loiola gurekin bisitatu zituela. Hortaz, harreman estua eraiki genuen, eta Garaik, Linazasorok eta besteok bat egin genuen bere tesi berritzaileekin.

Ondoren, Linazasorok eta biok Guardiako hiri-azterketa egin genuen, eta dagoeneko hainbat artikulua argitaratu genituen *Controspazio* aldizkarian, tendenza mugimenduaren alde. Azkenik, “Arkitektura Aste” horien hirugarren jardunaldietan Krier anaiak etorri ziren, eta nik Giorgio Grassi gonbidatu nuen Donostian antolatu genuen graduondoko ikastaro batera, oraindik Arkitektura Eskola existitzen ez zenean. Kritikak ere jaso genituen: *Arquitecturas Bis* aldizkaria sortu zuten Rosa Regásek, Bohigasek eta Moneok, eta hartan dezente beligeranteak izan ziren Rossiren inguruko arkitektura eta arkitektoekin; hainbeste, non artikulua batean “eta Donostiako taldetxo” gutxiespen-oharrak ere ihes egin baitziren. Salvador Tarragó zein Carles Martí arkitekto katalanek sortutako *2C Construcción de la ciudad* aldizkariak, aldiz, gure ideiekiko sintonia hobea garatu zuen, nik idatzitako “Vitoria. Una ciudad en el País Vasco” artikulua eraginkorra ere argitaratu zutela.



Guardiako behe-solairuko lursailak eta sotoetako upategiak. Iñaki Galarraga eta José Ignacio Linazasoro, 1975.

### **Zergatik arkitekto postmodernoak izandakoak, egun ukatzen dute izan izana? Non da arkitektura pentsamendu honen ospe txarra?**

Ospe txarra arkitektura postmodernoa estilo bihurtu zeneko garaitik dator. Badira hainbat arkitekto ia-ia ahaztu nahi dutenak garai hartan eraikitakoa. Linazasoro, esaterako. Nik, zorionez, nahiko gutxi eraiki izan dut nire bizitza profesionalean. Denbora gehiago eman dut arkitektura pentsatzen, eraikitzen baino.

### **Nola laburbilduko zenituzke arkitektura postmodernoren ekarpenak?**

Funtsean, eta metodo bezala ulertuta, historiaren berreskuratzea ekarri zuen arkitekturaren elementu nagusi gisa, esan bezala. Arkitektura eta, bereziki, monumentua, halaber, elementu kolektibo gisa planteatu zen, faxismoaren aurreko garaian ez bezala, hau da, hiriaren dimentsio kolektiboa azpimarratu zen. Hala ere, geroago estilo bihurtu zenean, arestian esan bezala, txiste bat bilakatu zen, Stern eta Krier anaiak bezalako eraginez, dena fribolizatu zutelara, batez ere 1978ko zentzurik gabeko *Roma Interrota* erakusketa eta gero. Esan daiteke erakusketa horrek inflexio-puntua zedarritu zuela.

### **Garai horretako zorrotzasun geometrikoa faltan botatzen al duzu gaur egun?**

Ez dakit besteek zer pentsatuko duten, baina nik bai. Batez ere, eraikuntzaren zorrotzasunari dagokionez. Alde horretatik, **estilorik gabeko arkitekturaren aldekoa naiz ni, soiltasunaren aldekoa**. Leiho bat ondo diseinatu eta hura fatxada osoan zehar errepikatzearen aldekoa nauzu. Edertasuna baino, gehiago baloratzen dut koherentzia, Giorgio Grassiren lan soilaren ildotik, adibidez.

### **Egia da arkitektura postmodernoaren zigilua inposizio estilistikoa bihurtu zela irakaskuntzan?**

Hori diote batzuek, eta, zurrumurru gehienekin gertatzen den bezala, ez dira egia guztia, baina gezur-gezurrak ere ez. Dena den, Donostiako Arkitektura Eskolan arkitektura arrazionalaren metodoarekin bat egin ez zutenak ere izan ziren, esaterako, Luis Peña Gantxegi. Hura irekia zegoen, ez zen estilo batera mugatzen.

### **Garai horretatik interesatzen zaizun eraikinen bat aipatzekotan, zein azpimarratuko zenuke?**

Eraikin hura edo bestea baino, nik gehiago aipatuko nuke arkitekturaren aldeko aldarte edo gogo moduko bat sortu nahi izan genuela garai hartan, eta nolabait lortu ere. Arkitekturaz mintzatzeko bilerak egiten genituen; Luis Peñak eta biok ia astero idazten genuen arkitekturari buruzko artikuluren bat; arkitekturako ikastaroak antolatzen genituen... Oinarri teorikoa oso garrantzitsua zen, gaur ez bezala. Ziurtatuko nuke gaur egun ez dela arkitekturaz hitz egiten orduan beste. Nire ustez, arkitektura-iritzia sortzeko gogo hori berreskuratuko beharko genuke, dudarik gabe.



° Unai Fernandez de Betoño arkitektoa eta EHUko irakaslea da.